

EAEan industria %0,2 gehitu zen 2007ko apirilean


2007. urteko lehenengo lauhilekoko hazkunde metatua %4,0koa izan da 2006ko lehenengo lau hilabeteetan

EUSTATEN datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2006ko apirilarekin erkatuta %0,2 hazi zen 2007ko apirilean. Urteko lehenengo lau hilabeteetako hazkundera %4,0koa izan da, 2006ko aldi beraren aldean.

2007ko apirilean, eta martxoaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa %4,4 gutxitu da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

Industri jardueraren balantzeak, urteko lehen lauhilekoan, %4,0ko gehikuntza izan du urte arteko tasan, ekipamenduko ondasunen portaera onean oinarriturik, energiaren sektoreak eta kontsumoko ondasunen sektoreak emandako tasa negatiboak gorabehera (batez ere kontsumo-ondasun ez iraunkorren kasuan).

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabetea



(*) 2007ko apirileko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektoreen araberrako bilakaera

Sektoreka, eta industri sektore nagusien sailkapenean oinarriturik, 2007ko apirileko indizearen bilakaerak, 2006ko apirilaren aldean, ondoko hauetarako gehikuntzak ekarri ditu: ekipamenduko ondasunak (%3,9), tarteko ondasunak (%0,8) eta energia (%0,9). Kontsumo-ondasunak, ordea,

%7,8 jaitsi dira, kontsumo-ondasun ez iraunkorren beherakada handiaren ondorioz (-%10,9), kontsumo-ondasun iraunkorrak ez baitira hainbeste jaitsi (-%0,8).

2007ko apirileko hil arteko aldaketak, 2007ko martxoaren aldean, negatiboak izan dira industriako sektore handi guztietan. Ekipamenduko ondasunak %5,7 jaitsi dira, energia %4,2, tarteko ondasunak %1,8 eta kontsumo-ondasunak %5,5, martxoarekin alderatuta. Kontsumo-ondasunen bi osagaien artean, kontsumo-ondasun iraunkorrek %3,9ko hil arteko gehikuntza izan dute baina kontsumo-ondasun ez iraunkorrek %6,4 egin dute behera, martxoaren aldean.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak ezberdinak izan dira; izan ere, Bizkaian %2,1 eta Gipuzkoan %0,5 hazi da, eta Araban %3,9 jaitsi.

2007ko apirileko hil arteko tasak, 2007ko martxoaren aldean, negatiboak izan dira hiru lurraldeetan: Araban %7,5, Gipuzkoan %4,9 eta Bizkaian %2,4 gutxitu dira.

Taula: 2007ko APIRILA. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzio Indizearen aldaketa-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	Api07/Apir06	At/At-1 (1)	Api07/Mar07	Mar07/Ots07
Indize orokorra: Euskal AE	0,2	4,0	-4,4	-0,3
Araba	-3,9	2,7	-7,5	-3,7
Bizkaia	2,1	3,2	-2,4	0,7
Gipuzkoa	0,5	5,7	-4,9	0,6
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-7,8	-2,8	-5,5	-0,5
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-0,8	0,6	-3,9	-1,5
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-10,9	-4,4	-6,4	0,1
Ekipo-ondasunak	3,9	9,7	-5,7	-1,6
Bitarteko ondasunak	0,8	4,6	-1,8	0,4
Energia	0,9	-4,1	-4,2	0,6

t urteko apiriletik azken hilerarte arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberarekin erkatuta.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp